



ZURRUNKA TEATRO-K

AURKEZTEN DU

Aioke

ITZALAK - TÍTEREAK - AHOZKOTASUNA

laguntzaileak






IKUSKIZUN DIDAKTIKOA, NON ITZALEK ARGIA ERAKUTSIKO DIGUTEN

Aioko irlako biztanleek, aniztasunak, naturarekiko errespetuak eta bizitzaz gozatzeko denbora libreak izan dezakeen balioa ahaztu dute. Aspaldi irla alai bat izan bazen ere, orain iluntasuna haien bihotzen jabe da. Bizilagunek baztertu dituzten bi pertsona oso berezi, Azkartxin eta Moteltxin, izango ditugu protagonistak.

Bidaia fantastikoa izango da, non abenturak, emozioak, sorpresak, Jenioak eta argiz beteriko itzalak aurkituko ditugun.

Antzezlan hurbila, atsegina eta dinamikoa. Familia giroan elkarbizitzari buruzko hausnarketa egiteko gonbita.



Azkartxin eta Moteltxin gara eta Zurrunka Teatrokoei gure irlan gertatutako istorioa kontatzea eskatu diegu. Egia esan, bi pertsona oso bereziak gara gu; ni, Azkartxin oso arina eta jakinminez beterikoa naiz. Eta ni, Moteltxin, nahiko baldarra eta oso, oso motela naiz. Hauek dira gure dohaiak, eta horrexegaitik gure bizilagunengandik baztertuak izan ginen. Baina lasai, gaur egun gure irla zeharo aldatu da, orain lehen baino askoz alaiagoa eta errespetuz beterikoa da.. Baina ez dizuegu dena aurreratu nahi, Nereak eta Enautek guk haiei kontatutako gertaera guztiekin istorio ederra irundu bait dute. Espero dugu zuen gustokoa izatea eta zuen herriko elkarbizitza hobetzeko lagungarria izatea.



2007 sortu genuen **ZURRUNKA TEATRO**

taldea, orduan antzerki joera ezberdinak landu ditugu, hala nola; Maskarak, txontxongiloak, itzal antzerkia, absurdoa, komedia eta ahozkotatua. Beti ere, ikuspuntu kritikoak, gizartearen arazo eta zailtasunen ispilu eta adierazle izatea dugu helburu. Konpainiak ekoiztutako ikuskizunak; "Karakolaren gaua", "Erraldoi bihotz gabea", "Iraungorriko Marimiri", "Kalekolore", " AC-NUN, un ciprés en un desierto" eta "Aquí estás mejor". Honez gain, itzal titere laborategiak eskaintzen ditugu. Kolektibo Monstrenkoarekin aritzen gara elkarlanean.

Zurrunka Teatrok parte hartu duen jaialdi eta erakustaldi batzuk:

Araia-Asparrenako umorezko antzerki jaialdia 2017

Kaleka, Lekeitioko nazioarteko kale antzerki jaialdia 2017

Barañaingo titere eta txontxongilo jaialdia 2017

Libourneko kale antzerki jaialdia 2017 (Frantzia)

Plataforma Katapulta, Tabakalera 2017

Kaldearte, Vitoria-Gasteiz kaleko arteen nazioarteko erakustaldia 2018

Errekaldeko umorezko antzerki erakustaldia, Bilbo 2018

Bastid'art 2018 (Frantzia)

Art Pantim 2018 (Frantzia)

Bertako Fest 2018 eta 2019. (Baratza aretoa)





FITXA TEKNIKOA:

Iraupena: 55 minutu inguru.

Hizkuntza: Euskera edo Gaztelera

Gutxieneko espazio eszenikoa: 5m (zabal)x 4m (sakon) x 2,5m (altuera)

Ikusle guztientzat. Adin egokia; 4 urtetik aurrera

FITXA ARTISTIKOA:

Sortzaile eta antzezleak: Eñaut Gorbea eta Nerea Ariznabarreta

Kanpo begirada: Itziar Rekalde

Musika: Mariano Hurtado

Soinu eta argiak: Amaia Garrosa

Eszenografia eta atrezzoak: Zurrunka Teatro

Istorioaren sorkuntzan laguntzaileak: Yoshi Hioki eta Itziar Rekalde.

EÑAUT GORBEA.

Vitoria-Gasteiz, 1984



Zurrunka Teatro taldearen sortzailea. "YindeYan Nazioarteko laborategian", Eric de Bont's eta Andres Bezaresen eskutik jaso ditu besteak beste formakuntza aipagarrienak. Antzerki estilo ezberdinak jorratu ditu; maskarak, itzal titereak, klowna, antzerki fisikoa, ahozkotasuna eta umorezko antzerki absurdoa. Antzezle, zuzendari eta gidoilari gisa Zurrunka Teatrotik ekoiztutako antzezlanetan parte hartu du, hala nola; "Karakolaren gaua", "Iraungorriko Marimiri", "Erraldoi bihotzgabea", "Kalekolore", "Kirikiñolandiako Titiriteroak", "AC-NUN, Un ciprés en un desierto", "Aqui estás mejor", "Aioko" eta "Ruta 1492"

2008tik ipuin kontaketa saioak eskaintzen ditu Euskal Herrian zehar bai euskaraz zein gazteleraz ere.

Kolaborazioak beste taldeekin: YindeYan Teatro: "Vagamundi". Kolectivo Monstrenko: "Ardorien", "Soy una pérdida de tiempo en constante movimiento", "Maitasunezko bi istorio eta marko teoriko bakarra" eta "Calma chicha" (Enredados, 2018). Lekim animaciones: Enperadorearen jantzia.

Honez gain, itzal titere laborategiak eskaintzen ditu; Eskoletan, kultur etxeetan eta Lekeitioko Arropaineko Arraguak eskolei zuzendutako Espazioa eta gauzak formakuntza programan bestek beste.

NEREA ARIZNABARRETA

Eibar, 1981



Oinarri profesionala Euskal Herrian du eta formakuntza Gasteizko "Eszena-Arte Tailerra"-n hasi zuen, ondoren, "Bont's International Clown School", Philippe Gaulier, Lila Monti, Virginia Imaz eta LISPA-n (Lecoq teknika) jarraitu du bere heziketa artistikoa.

2008an Zurrumurru konpainia sortu zuen eta hainbat lanen partaide izan da; "Arkakusoaren zirkoa" eta "Klownstrofobia mendian".

Honez gain, talde ezberdinen produkzioetan parte hartzen du; Muguyay, Laurentzi Producciones, Lekim Animaciones, Zurrunka Teatro eta En la Lona.

Gaur egun, Naita Produkzioak sortu berri du, non ipuin musikatuak jorratzen diharduen.

Egindako lan aipagarrienak:

Lekim Animaciones: "Enperadorearen jantzia", Zurrunka teatro: "Aioko", Laurentzia Producciones: "Santxoren anaia", "Adela y Martirio", "Stuffed" "Berriz Topatzean" (Mikroantzerkia), "The man who planted trees", "Arkakusoaren zirkoa" Zurrumurru Antzerki Taldea, "Sialuk hartz txikiaren bidaia" Cía En La Lona, "Exodo" Cía En La Lona, "Pantxika eta Txinparta" Zurrumurru Antzerki Taldea, "Klownstrofobia mendian" Zurrumurru Antzerki Taldea, Piano jolea eta clown-a "Nonbait agian hemen" performance eta film mutuan (2018), Ipuin Kontalaria, Antzerki irakaslea Banarte Antzerki Taldeko tailerrean, "Klowna eta Jabetzea" tailerreko irakaslea (2018)



ITZIAR REKALDE
Vitoria-Gasteiz, 1956

Vitoria-Gasteizeko TAEn (Taller de Artes Escénicas) hasi zuen eskenarekiko formakuntza. Besteak beste, Linda Wisse, Enrique Pardo (Voice performance Schol), Centre Artistique International Roy Hart (París), Jorge Sanchez (La Cantera Madrid-Buenos Aires) Gustavo Palacios, Eduardo Milewich, Ana Pérez (Legaleón), Emilio Goyanes (Lavi Ebel), Oscar Gómez (L'alacran), Pedro Madoz, Ander Lipus (artedrama), Miguel Molina, Sanchis Sinisterra izan dira bere oinarrizko maisuak.

Eszena esperimentalean, ahozotasunean eta antzerki fisikoan oinarritzen da nagusiko bere lana. Kukubazar antzerki taldean eta Kolektibo Monstrenkoko partaide da eta hauekin sorkuntza kolektiboan, eszenaratzean eta antzezlanetan aritzen da.

1990.eko hamarkadan antzerkiaren bidean zegoela topo egin zuen ipuingintzarekin eta gaur egun horretan dihardu batzuetan kontaktzen, bestetan biltzen, sortzen edo entzuten baina beti istorioen munduan sartuta eta ahozko narrazioan ere. Euskal Herriko kontalarien elkartearen sorreran parte hartu zuen eta Ladamasa elkarteko kidea da.

Ahozko Memoria Familiarra sustatzeko Ipuin Lapiko egitasmoa zuzentzen du 2013az geroztik eta Kolectivo Monstrekotik Memorendolas egitasmoa ere. Hitzaldiak, laborategiak eta tailerrak eman ditu (UPV/EHU, La Platako Unibertsitatean, Bogotákoan, Buenos Aireseko Museo Antropológico del Hombre, Fundación Otraparte (Medellín) eta Gasteizen besteak beste.

YOSHI HIOKI.
Osaka, 1972

Japoniarra da eta 1991tik Bartzelonan bizi da. Katari-ka da (istorio narratzailea) eta mito, legenda, ipuin eta istorioak kontaktzen ditu profesionalki. Bere jarduera artistikoa pintore lanekin uztartzen du. Tailer kulturaletako irakaslea eta "Casa Asia" eta "Museu Etnologic de Barcelona"n hizlaria. Arte Ederretan lizentziatua Bartzelonako Unibertsitatean.





MARIANO HURTADO

Cádiz, 1977

Goi mailako titulazioa Jazz – Kontrabaxua espezialitatea. Musikenen.
Graduondoa Musikoterapian. Musicarte-n Gasteizen.
2002tik 2016ra musikako irakaslea.


La Islan jaio zen, Camaron bezala, gatz eta paduraz inguraturik. Musikak aukeratu zuen eta hasieratik izan da bidelagun fidela eta orain musika harrapatzen duen guztiarekin egiten du. Hainbat instrumentu jotzen ditut, baxua, gitarra, kontrabaldea, pianoa, kartoizko kutxak, kontrabaxua eta zenbait lata.

Topatzen joan den jendearekin aritu da elkarlanean, El Hombre Burbuja, Inoreneroni, Jupiter Jon, Amorante eta Anari bandetan parte hartuz. Eta baita musika eta ahozkotasuna eskutik dihoazten proiektuetan ere Hysteron, Mmàtarrak, Edipotoa eta NAITA produkzioaren ipuin musikatuekin esaterako.

AMAIA GARROSA
Vitoria-Gasteiz, 1980

Ikusentzunezko Komunikazioan lizentziatua 2002an, Euskal Herriko Unibertsitatean, Leioa. Soinu eta argi teknikari bezela egin du lan hainbat antzerki konpainietan, zuzeneko soinua eta soinu postprodukzioan ere. Lan grafiko eta ikusentzunezkoak egiten ditu eta gorputz eta dantzaren inguruko bere beste alderdi profesionalarekin uztartu.





HARREMANA

695 714 699

zurrunkateatro@gmail.com

www.zurrunkateatro.com